



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 10ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK.

1.1) I.L.A.k, Artetxe hotelaren atzekaldeko zuhaitzetako podak eta belar txarrak erre ahal izateko kontsulta egiten du.

Ibai ertzeko zuhaitzen inausketak egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako URAKen baimena beharko da.

1.2) Akoa bideko putzua.

Akoa bailarako sarreran egiten den putzua dela eta, jabeekin bilera bat egitea adostu da.

1.3) A.E.E.ek, jakinarazten du orain dela hilabete batzuk autoa garbitu behar izan zuela herdoil partikulen erruz. Orain ikusten du berriz ere partikulak dituela autoan, ondorioz, Udalarai gai honen inguruan neurriak har ditzala eskatzen dio.

Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari udan jaso dituen kexa, argazki eta bideoak bidali dizkio.

1.4) A.U. S.L.k, azaldu du dagoeneko 4 urte daramatzatela arazoak izaten ondoko pabiloiarekin, beraien pintaketa jardueragatik. Udalarai neurriak hartzeko eskatu diote, eragozpenik sor ez dezaten eta jarduera baldintza egokietan gara dezaten.

Enpresari falta zaion aurretiazko komunikazioa aurkezten duenean, Udalak dagokion egiaztatzea egingo du.

1.5) Aizarnan kotxeak mantsoago ibiltzeko abidaura murriztaileak jartzeko proposamena.

Aurrekontuak eta Gipuzkoako Foru Aldundira baimena eskatuko dira.

1.6) K.A.R.k, J.L.A.I.en izenean, Alonderoko Aldapa 1eko Zubimusu baserrian teilatupeko forjatua birgaitzeko behar diren baimenak eskatu ditu. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.7) I.M.G.A.k, G.E.ren izenean, egoitza ondoan dagoen lursailean txabola bat eraikitzeko baimena eskatzen du. Txabolak bete beharreko baldintzak jakinarazten dira.

1.8) I.S.I.ak, 6087101 lur eremuan itxitura egiteko udal baimena eskatzen du. Itxiturak 1,20 metroko altuera izango luke eta sare galbanizatuaz egina izango litzake. Baimena ematea erabaki da.

1.9) L.G.L.k, Arteaga auzoko bosgarren zenbakiko eraikinaren jabeakideen izenean eta hura ordezkatzuz, jabetza horizontala zatitzeko lizentzia emateko eskaera egiten du.

Jabetza horizontala zatitzeko nahitaezko lizentzia emateko, eskrituren zirriborroa aurkeztu beharko Udal honetan.

1.10) N.O.A.k, umeen parkeko lurra oso egoera txarrean dagoela dio, zartadura handiak dituela.

Haurren parkeko eremu hori 2021ean birmoldatzeko asmoa du Udalak, beraz, birmoldatzeko unean konponduko da.

1.11) E.I.L.k, komun portatilaren inguruko kexa aurkezten du.

Honen garbitasuna eta higiena bermatuta dago, udal garbitzaileak garbitzen dute komun hau.

1.12) G.M.E.k, Iraetabidea 3an garajea eta biltegi moduan erabiltzen den txokoa bereizten dituen horma botatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.13) J.A.ek, B.A. S.A.ren izenean, Arroabeko instalazioan B.A.ko ur-hornidurako hartuneak aldatu behar direnez, udal teknikariaren bisita eskatzen da, bertan dauden aukerak egiaztatzeko.

Bilera bat egingo da.

1.14) A.A.E.k, Uztapide plaza 1 beheko ingeles akademian bi leiho aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.15) J.G.B.A.k, Baratzeta kalean, bere garajearen aurrean pibotea puskatuta dagoela dio. Pibotea jarrita dagoela jakinarazten da.

1.16) H.M. enpresak, enpresa horretan eginiko suteen aurkako sistemaren azterketa baten ondorioz, ikusi dute ur emariaren presioa baxuegia dela.

Poligonoko ur emariaren presioa horrelakoxea dela adierazten da.

1.17) Usoak, herritarren kexak ugaritzen doaz. Gai honen berri ematen da.

1.18) M.M.A.k, frontoiaren eskuineko lehen bi baoak ixteko, sare itxi edo egokitzen jotzen den beste irtenbideren bilatzeko eskaera. Orain egiten ari diren lanak irisgarritasuna hobetzeko direnez, aurrera begira aztertuko da ze aukera dauden arazo hori ekiditeko.

1.19) X.A.G.k, Gesalaga kalea 1 3A etxebizitzaren fatxadaren ingurutzaile termikoa berritzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.20) S.S.S.k, Gesalaga kalea 1 4A etxebizitzaren fatxada zati bat aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.21) M.T.G.I.ek, Gesalaga kalea 1 2A etxebizitzaren fatxada zati bat aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.22) K.M.Z.L.k, Gesalaga kalea 1 2A etxebizitzaren fatxada zati bat aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

1.23) M.O.O.k, garbitzaileen lan-eskaintza berrirako, 2018an egindako hautaketa-prozesua erabiltzea eskatzen du.

Argitaratu zen iragarkian, deialdiaren xedeak ez du baimentzen eskatutakoa egiterik. Hala ere, aurrera begira egingo diren lan-eskaintzetan kontuan hartuko da.

2.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.

- 2020ko urriaren 13an Euskara, Hezkuntza eta Komunikazio Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko azaroaren 10ean Euskara, Hezkuntza eta Komunikazio Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 14an Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko irailaren 22an Sozio-Ekonomia eta Herritarren Parte Hartzea Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 27an Sozio-Ekonomia eta Herritarren Parte Hartzea Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

3.- ALKATEAREN EBAZPENAK.

- 333 zk: I.R. garbitzailearen gaixotasun baja ordezkatzeko izendapena esleitzea A.E.O.ri.
- 334 zk: Gañetabidea 4ko Artiagain etxean egindako obren amaiera dela eta, ordaindutako gehiegizko zergaren itzulketa J.G.G.ri.
- 335 zk: B. jatetxeari legezketasun espedientea irekitzea baimenik gabeko obrak egitearren.
- 336 zk: B. jatetxeari zehapen espedientea irekitzea baimenik gabeko obrak egitearren.
- 337 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena A.G.A.ri.
- 338 zk: Programa onartzeko ebazpena. I.U. bitarteko funtzionario izendatuaz.

4.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

5.- ERREGU ETA GALDERAK.

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:33ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e